WIKITOKI

WIKIRIKI

2019-2020 ikerketa- eta sorkuntza-egonaldien deialdia

WIKI elkarlanagatik
IRIKI irekitasunagatik
KIKIRIKI dei gisa

Wikitokitik deialdia egin diogu esperimentazio irekiari. Diziplinaz haraindiko elkarlanaren inguruko ikerketa- eta sorkuntza-egonaldien deialdia atera dugu.

BALIABIDEAK: Guztira 12 000 € (zergak barne), gutxienez 4 proiektu garatzeko, proiektuko 3000 €-ko aurrekontuarekin gehienez +Espazioetara sartzeko eta baliabide materialak zein inmaterialak erabiltzeko aukera, egonaldian zehar eskainitako laguntzaz gain.

EPEAK: Proposamenen aurkezpena 2019ko irailaren 29ra arte (23:59ak arte). Proiektuak burutzea, bi txandatan: urriak 22tik aurrera eta urtarrilak 13tik aurrera. 2 eta 6 hilabete arteko iraupeneko egonaldiak.

ZALANTZARIK? Marina Urrutikoetxea, wikiriki@wikitoki.org

AURKIBIDEA

1.- Nortzuk egiten dugu deialdi hau?

2.- Zeintzuk dira deialdi honen helburuak?

3.- Zeintzuk dira gure esperimentazio-arlo nagusiak?

4.- Zeintzuk dira egonaldien ezaugarri nagusiak?

- **> Nori dago zuzenduta deialdia**
- **> Izaera esperimentala eta landu beharreko gaiak**
- **> Espero diren emaitzak**
- **> Baliabide erabilgarriak**
- **> Komunikazioa eta aurkezpena**

5.- Nola parte hartu?

- **> Egutegia**
- **> Aurkezpen-modua**
- **> Epaimahaia eta aukeraketa-irizpideak**

6.- Zer-nolako proiektuak garatu dira egonaldi mota hauetan?

Oinarrietanan agertzen diren irudiak interneten bidez deskargatu dira hitz hauekin bilaketa bat egiten: **gallinas, gallo, huevos, gallinero**



1.- Nortzuk egiten dugu deialdi hau?

Wikitoki Elkartea - Elkalsorkuntzarako Laborategia, diziplinaz haraindiko elkarlaneko jarduteen laborategia gara, kultura-ekintzaren, performatibitate artistikoaren, kodiseinuaren, giza-berrikuntzaren, garapen komunitarioaren, ekonomia solidarioaren edo teknologia askeen artekoa.

Izaera autokudeatua duen lanbide-komunitatea, zeinean ekimen pribatutik bokazio publikoarekin jarduten den prokomuna indartzeko. Topagunea San Frantzisko auzoan (Bilbao), non 2014tik aurrera ANTOLAKUNTZA (harremanak, gobernantza, erabakiak hartzea, sareak), EKOIZPEN (ikerketa, sorkuntza, lana, erakusketa, banaketa, kontsumoa) eta JABETZA (prokomunak, jabetza partekatua, ekonomia kolaboratiboa) moduen inguruan esperimentatzen den.

Gaur egun eragile hauek osatzen dute Wikitokiko komunitate egonkorra: Artaziak, Basurama, cAnicca, ColaBoraBora, Hiritik-at, Histeria Kolektiboa, IDEATOMICS / Saioa Olmo Alonso, Iker Olabarria, Josune Urrutia Asua, KARRASKAN, Laura Fernández, Montera34, Pezestudio, TIPIgara, Violeta Cabello eta Urbanbat. Gainera, Wikitoki KARRASKAN (Euskadin kulturaren berrikuntza eta berrikuntzaren kultura sustatzeko elkartea) edo Sarean (Mariaren Bihotza Plazaren dinamizazio soziokulturalerako elkartea) elkarteen edo sareen partaide aktiboa da ere.

Hau izan daiteke Wikitoki ezagutzeko modu ona:

Wikitoki zer den azaltzen duen bideoa (9'): https://youtu.be/ng7PmkVY3UE
Wikikrazioa kudeaketa eredu gisa azaltzen duen bideoa (3'): https://www.youtube.com /watch?v=aetIZ48EpQs
Wikitoki zer den eta nola funtzionatzen duen azaltzen duen PDF gida (2016): http://wikitoki.org/wp-content/uploads/2018/05/QUE-ES-Y-COMO-FUNCIONA-WIKITOKI.pdf
Begiratu gure web orrialdea http://wikitoki.org/ edo gure Twitter kontua: https://twitter.com/wiki_toki

Egonaldi-deialdi hau Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin bat antolatu dugu, SORGUNE programaren bidez, baita Bizkaiko Foru Aldundiko kultura sailaren eta Bilboko Udalaren laguntzarekin ere.

2.- Zeintzuk dira deialdi honen helburuak?

Esperimentazio irekia burutzeko deialdia da WIKIRIKI. Egonaldi-deialdi honek batez ere honakoa bilatzen du:

Pertsonak eta taldeak gonbidatzea modu esperimentalean (aplikatuan zein ez-aplikatuan) jardutera Wikitokiko ikerketa-ildoekin edo elkarlanaren inguruko arazo zehatzekin harremana duten zenbait aspektuei buruz.

Inguru abegitsua eskaintzea ikerketarako eta sorkuntzarako baldintzak errazten dituena, ezagutzen, baliabideen eta proiektuen ekoizpena eta trukea sustatzen duena; era berean, elkarlanaren inguruko eragileak eta jardunbideak zentzu zabalean **azalarazten** dituena eta euren **balioa nabarmentzen** duena.

Wikitoki komunitatearen harreman-espektroa zabaltzea eta horrela eragile gehiagori ezagutzera ematea, kide eta lankide berriak, esperientzien eta ezagutzen transferentzia, beste arloekiko lotura,... bilatzeko.

3.- Zeintzuk dira gure esperimentazio-arlo nagusiak?

Wikitoki elkarsorkuntzarako laborategia da, batez ere orokorrean bereizita dauden mailak edo diziplinak; kultura, ekonomia, parte-hartzea, diseinua, hirigintza, teknologiak, hezkuntza,... zeharka jorratzen eta hibridatzen aritzen dena. Gainera, esperimentazio-saila osatzen du, batez ere lau sail osagarri hauen inguruan zabaltzen dena:

1. **Esperimentazio kulturaleko, subjektibitate berriak eta elkarsorkuntza ekoizteko ereduak.** Aldaketa ezer baino lehen kulturala da, iruditerien, itxura eta harreman-egituren, jokabideen, erituen eta ohituren aldaketa. Eta horretan funtsezkoak dira praktika artistikoak eta aurkezpenekoak, modu zabalean ulertuak; banako zein talde subjektibotasuna aldatzeko moduak bezala.

2. **Antolakuntza-ereduak eta harreman-protokoloak eta lan horizontalak zein banatuak.** Hazkunde orekatuko moduak erraztea, adhokrazia, soziokrazioa eta mutualismoaren artekoak, elkarlanetik, sinergiak sortuz, osagarritasunak sustatuz; gaur egungo banakotasun eta prekarietate egoerari aurre egiteko. DIYtik (DoItYourself) DIWOra (DoItWithOthers) igarotzea.

3. **Bizitza erdialdean kokatzen duten erreprodukzio sozialeko ereduak.** Estimuak eta zaintzak nabarmentzea, etika feministaren printzipioetan eta permakulturan oinarrituz. Harreman ez-instrumentalak ezartzea, erantzunkidetasunean, jasangarritasunean eta elkarrekiko mendekotasunean oinarrituta.

4. **Ekoizpen-eredu ireki eta askeak.** Aukera berriak sortzea sortzen ari denari arreta jarriz eta guztien ongi sustatuz. Ekonomia solidariotik, elkarlaneko ekonomiatik eta P2Ptik datozen ikuspegiak birnahastea. Errenta zein beste kapitalen (sinbolikoa, arrazionala, denbora,...) banaketa hobea eskaintzea.

4.- Zeintzuk dira egonaldien ezaugarri nagusiak?

> Nori dago zuzenduta deialdia

WIKIRIKI lehia askeko deialdia da zeinean **edozein motako pertsonek eta taldeek (formalek zein informalek) parte hartu har duten**, zeinen jarduera ikerketara, sorkuntzara edo sormen aplikatura lotuta dauden zenbait arlotan, hala nola, arte performatiboetan, gizarte-zientzia esperimentaletan, teknologia askeetan,...

Funtsezkoena da hautagaiek euren motibazioa transmititzea eta Wikitokik proposatutako gaiekin, interesekin eta beharrekin bat doan proposamena aurkeztea. Bestalde, parte hartzeko ez daude faktore murritzailerik adinari, generoari, jatorriari edo aurreko esperientziari dagokienez, baina Wikitokitik bultzatzen dugun ekintza-multzoaren oreka zaintzen dugu dibertsitateaz bezainbatean.

> Izaera esperimentala eta landu beharreko gaiak

WIKIRIKI izaera esperimentaleko eta edozein formatuko proposamenetara zuzenduta dago (joko bat, altzari bat, dinamika performatibo bat, fotoelektriko bat, prozedura berri bat, zehaztu beharreko gonbidapena, talde-esperimentuak, ospakizuna, bideo-tutoriala, errezeta liburua, app bat, abesti batzuk, txango bat,...). Proiektu berriak edo abian dauden proiektuak izan daitezke, aukera baldin badago horien fase berria edo alderdi zehatza Wikitokiren esparruan garatzeko.

Oinarri hauen 3.- atalean adierazi dira Wikitokiren ikerketa-esparru nagusiak, betiere elkarlaneko genea bultzatzeko asmoarekin. Orokorrean ematen den moduan, askotan bilatzen duguna eta eskatzeko gai garena ez datoz bat, aipatzen dugunaren barne ez dago benetan nahi dugun edo behar dugun elementu “bitxi” hori. Hortaz, espero dugu **BAKOITZAK ASKE SENTITZEA BERE USTEZ EGOKIENA PROPOSATZEKO.** Gainera, proposamenak bideratzera lagundu dezakelako, ondoren zenbait gai zehatz partekatuko ditugu zeinen inguruan gabiltza orain:

ERLAZIONALA ZAINTZEAREN INGURUAN. Wikitoki sortzen dugunok gehien esplizitatzen ditugun behar-nahietako batzuk dira erlazionalean parte hartzen duten kontuak nabarmentzea: estimuak, emozioak, gatazkak adieraztea eta kudeatzea edo komunikazio ez-bortitza. Horrek honekin du harremana: emozionala bere espazioa aurkitu dezala kudeaketan eta ekoizpenean; gatazkak azaltzeko eta horietan aritzeko bideak egon daitezela; larrialdi-kabinetea sortzea,... Nola egin dezakegu aurrera norabide honetan? Subjektibitate berria emozioen eta gatazken inguruan? Wikitokin testatzeko esperimenturik?

WIKITOKIN EUSKARAREN INGURUAN. Wikitokin gero eta jende gehiago egon arren euskaraz aritzen dena, gaztelera da hizkuntza beikularra. Euskararen erabilera normalizatzea eta komunitatearen egunerokotasunean eta komunikazioan zabaltzea dira egonaldiekin hasieratik landu ditugun erronkak (ikusi *MEMEMAKINA* eta *THE TORTIL IS PREST! Euskara maitasunetik, mesedez* kasuak, oinarri hauen 6.- atalean). Nola sartu euskara egunerokotasunean? Nola sustatu bere erabilera modu organikoan? Wikihitzen hiztegia euskaraz? Zer egin liteke Wikitokin euskaran baino ez? ...?

JOLASTEAREN INGURUAN. Jolastea bizitzeko eta mundua interpretatzeko modu gisa. Jolasaren inguruan teorizatzea edo jolastea. Jolasaren arauak eta dinamikak ezagutzea eta erabiltzea. Jolasa sartzea gure ikerketa- eta lan-prozesuetan. Jolasak dadaismotik, surrealismotik, fluxusetik, situazionismotik. Jolasa gertaera antropologikoaren edo psikologia sozialaren esparru gisa. Ludopedagogia. Ludikoa eta gamifikatua parte hartzeko eta elkarri eragiteko estrategiak gisa. Joko kooperatiboak. Gorputza jartzea. Jolasak, zeinetara jakin gabe jolasten dugun. Ondo pasatzea. Esploratzea. Jolastea besterik ez jolastea bezala... Nola berreskuratu geure sen jostalaria? Nola sartu jolastearen logika geure bizitzetan? Jolastuko dugu?

JANARIAREN ETA JATEAREN INGURUAN. Wikitokin, konturatu gabe, gastronomiak dirudien baino paper esanguratsuagoa dauka. Office bat daukagu non jende ugarik bazkaltzen duen (bazkarian harreman eta elkarrizketa informalak gauzatzen dira). Kudeaketa banatutako gure roletako batzuk dira hauek: “Gremlin ehiztaria”-rena, hozkailua garbi mantentzeko ardura duena; eta Baitoker-arena, janariz zuzkitzeko ardura duena. Geure barne harreman-dinamiketako bat da zozketa bidez hitzordua izatea bikoteka bazkaltzeko (“Zozketatxoa”). Auzo-garagardoa ospatzea dugu gustuko, batzuetan “Traje-bazkaria” dugu eta taberna bitxietatik ibilbidea egiten dugu. Sukaldeko errezetak prokomun modu aparta dira. Eta urtebetetzeen, bidaien, bisiten eta baratze partikularren artean, otamen bereziak egon ohi dira. Gainera, Wikitokiko atzealdean plazatxo bat dago, zeinari abantaila gutxi ateratzen diogun aire zabalean bazkaltzeko... Elikadura komunalaren ildo honekin jarraituz, zer egin dezakegu horren inguruan?

Gomendio orokor gisa, Wikitokin **GAUZA GUTXI, HOBETO EGINDAKOAK** printzipioa defendatzen dugu (kalitatea lantzea, xehetasunak zaintzea, zerbaiten sakontzea, proposamen baten zenbait iterazioa egitea,...). Eta egonaldiekin dugun aurreko esperientzia kontuan hartuta, orokorrean, proposamenek hobeto funtzionatzen dute fronte ugari ukitu ordez esperimentazioa zerbait zehatzera bideratzen badute.

Gainera, ohar garrantzitsua: WIKIRIKIn bilatzen diren produktuak neurri handi batean Wikitokiko esparrura eta komunitatera bideratuta egon arren, horiek **autonomiarekin garatu ahal izan beharko dira, denboren eta baliabideen ekologiaren barne**. **Hau da, proposamena funtzionatu dezan, ez da ezinbestekoa izan beharko parte-hartze intentsiboa ezta komunitatea parte-hartzea** ere (zentzu horretan, modu baikorrean hartuko dira kontuan proiektuak inplikazio modu edo maila batzuk errazten badituzte, elementu ludikoak gehitzen badituzte edo aurretik inplikazio beharrak esplizitatzen badituzte beharrezko konpromisoa gure aldetik egingarria den ala ez ebaluatu ahal izateko).

> Espero diren emaitzak

WIKIRIKIk izaera esperimentala dauka; hortaz, ez dira espero emaitza zehatzik edo aurrezarriak; baina bai egonaldian proposamenaren garapena edo proposamena testatzea nabarmentzen duen prozesua garatzea.

Aurrerapen horrek egonaldiaren **amaierako itzulkina edo entregagaia sortu** behar du, zeinaren ezaugarriak anitzak izan daitezkeen eta proposamen bakoitzaren izaeraren mende egongo direnak.

Sortutako lanaren jabetza egilerena izango da, baina bere osotasuna edo zati esanguratsu bat **lizentzia askepean** eskuragarri izan beharko da (adibidez, creative commons, GPL,...), egindakoa berrerabiltzea, hobetzea eta transferitzea baimentzen dutenak.

Gainera, burututakoari erreferentzia egiten dio edozein argitalpenean ondorengo legenda gehitu beharko da: *Wikitokin WIKIRIKI esparruan garatutako proiektua, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin antolatuak, SORGUNE programaren bidez, baita Bizkaiko Foru Aldundiko kultura sailaren eta Bilboko Udalaren laguntzarekin ere.*

> Baliabide erabilgarriak

WIKIRIKIrekin, Wikitokitik, baldintza batzuk eskaini nahi ditugu, zeinei esker denbora askatu, baliabideak mobilizatu eta esperimentaziorako itzulkin mesedegarria aurkitu.

Deialdi ireki hau garatzeko aurrekontua **12 000 €-koa da (zergak barne), gutxienez 4 proiektu garatzeko, proiektuko 3000 €-ko aurrekontuarekin gehienez.** Ordainketa faktura bakarrean egingo da, % 50 hasieran ordainduko da eta gainerako % 50 egonaldia amaitzean.

Wikitokitik, besteak beste, honakoa eskaintzen da: **espazioetara sartzeko eta baliabide materialak zein inmaterialak erabiltzeko aukera, egonaldian zehar eskainitako laguntzaz gain** (laguntza hau proiektu bakoitzaren izaeraren menpe egongo da eta kasu bakoitzean moldatuko da —gutxienez hasierako bilera eta beste bat erdiko fasean izango ditu—).

> Komunikazioa eta aurkezpena

Wikitokin elkarlanean, irakaskuntza partekatuan eta kode irekian aritzen gara. Talde-adimenean eta ekintzen eta zentzuen mailen baturan sinesten dugu. Horregatik, garrantzia ematen diogu prozesuak zein emaitzak partekatzeari. Horretarako esperientziak komunikatzeko eta partekatzeko espazioak eta momentuak sortzen ditugu.

Logika horretan, WIKIRIKIn aukeratutako eragileek honakoa hitzemango dute:

- Aurkezpen publikoa egingo dutela egonaldiak amaitzean (batera baloratuko da aurkezpenaren formatua).
- Materialak erraztuko dituztela prozesuan zehar burututakoa komunikatzeko eta emaitzen aurkezpenerako (irudia, testuak, eskemak,...). Komunikazioa batez ere Wikitokiko webean, sare sozialetan eta hedabide digitaletan egingo dela.
- Eskuragarri egongo direla Wikitokitik proiektura lotutako edukiak sortzeko (elkarrizketa + argazkiak + bideoa).
- Lizentzia askeak erabiltzera dibulgazio zein komunikazio edukientzat.

5.- Nola parte hartu?

> Egutegia

Deialdia irekita egongo da **2019ko irailaren 5etik 29ra (23:59etara arte).** Ebazpena urriak 15 jakitera emango da.
Egonaldiak bi txandatan hasiko dira, lehenengoa urriak 22tik aurrera eta bigarrena urtarrilak 13tik aurrera. Egonaldi bakoitzak gehienez 2 eta 6 hilabete arteko iraupena izan ahalko du (datak eta epeak proiektu bakoitzarekin zehaztuko dira).

> Aurkezpen-modua

Eskaerak euskaraz edo gazteleraz aurkeztuko dira, maila bidez wikiriki@wikitoki.org helbidean, gaian aurkezten den eragilearen izena eta 2019 Egonaldiak erreferentzia adieraziko dira, hau da: “ZureIzena, WIKIRIKI 2019-2020”. 2019Ko irailaren 29ko 23:59ak baino lehen jasotako eskaeran baino ez dira onartuko.

Dokumentazio osoa **dokumentu bakarrean** aurkeztuko da **PDF formatuan (gehienez 5 MBko pisuarekin), eskatutako edukira eta informazioaren luzera moldatuko dena.** Beste edukira zenbait formatutan egindako erreferentziak esteken bidez gehituko dira PDF horretan.

Eskaera-dokumentuak honakoa izan beharko du:

Izenburua.
Laburpen-fitxa: Proposamenarena + Aurkezten duenaren eragilearena (gehienez 75 hitz).
Proposamenaren deskribapena, horren motibazioa, helburua, espero den emaitza, beharrak,... barne (gehienez 1000 hitz, irudiekin edo eskemekin batera joan daitezkeenak, proposamena ulertzea laguntzen dutenak).
Proposamena garatzeko **kronograma** (egonaldi bakoitzak 2 eta 6 hilabete arteko iraupena izan dezake). Garrantzitsua da kontuan hartzea bi txandatan hasiko direla, lehenengoa urriak 22tik aurrera eta bigarrena urtarrilak 13tik aurrera (datak eta epeak proiektu bakoitzarekin zehaztuko dira).
Aurrekontua (gehienez 3000 € proposamen bakoitzeko, ordainsariak, ekoizpena, desplazamenduak eta dietak barne, zergak barne).
Pertsonaren edo kolektiboaren **aurkezpena edo curriculuma** (gehienez 2 orrialde).
Pertsonaren edo kolektiboaren administrazio-datuak (nortasun juridikoa ez duten kolektiboei pertsona bat arduradun gisa solasaldirako, fakturak igortzeko,...) eta harreman-datuak (maila, telefono zenbakia, web, sare sozialak) izendatuko zaizkie.
Eranskina eragilearen ibilbidea aintzat hartzeko lagundu dezaketen **aurreko proiektuak dituen eranskina** (aukerakoa).

Edozein zalantza edo argibiderako Marina Urrutikoetxearekin, Wikitokiko egonaldien arduradunarekin, harremanetan jarri zaitezke hemen: wikiriki@wikitoki.org.

> Epaimahaia eta aukeraketa-irizpideak

Wikitokiko kide aktiboz osatutako komitea arduratuko da proposamenak balioesteaz eta aukeratzeaz.

Ondorengo irizpideak erabiliko dira:

Proposamenaren egokitasuna Wikitokiren ikerketa-ildoen arabera edo elkarlanari dagozkion arazoen arabera.
Wikitokiko testuinguruarekiko ekarpen- eta moldaketa-maila, bere eredua, funtzionamendua edo komunitatea indartzeko; edo irekitzen edo dibertsifikatzen laguntzeko.
Eskuragarri dauden baliabideen **bideragarritasuna** eta moldaketa-maila (aurkeztutako kronogramaren eta aurrekontuaren arabera).
Dibertsitatea proiektuen tipologiari eta diziplina-esparruei dagokienez, baita aukeratutako eragileen adinari, generoari jatorriari edo aurreko esperientziari dagokienez, Wikitokin sustatzen ditugun ekintzak direla eta.

Beharrezkoa izatekotan, epaimahaiak eskatzaileei eskatu ahalko die edonolako argibide, zehaztasun edo informazio osagarri proposamena modu egokian balioesteko.



6.- Zer-nolako proiektuak garatu dira egonaldi mota hauetan?

Aipatzen ditugun egonaldiak hobeto ulertzeko, ondoren modu laburtuan aurkeztuko ditugu 2016 eta 2018 artean burututako zenbait: Eta sakondu nahi baduzu, esteka hau begiratzea gomendatzen dizugu: http://wikitoki.org/blog/category/residencias/

***A LA CALLE* (Iñigo Goikoetxea)**
Auzoaren oroimen kolektiboa sortzea banakako lekukotzen bidez. Bilbo Zaharreko auzokideekin izandako elkarrizketak erretratu marraztua egiten zitzaien bitartean. Wikitoki eta kalean gertatzen dena lotzeko modua. Emaitza; auzoko zenbait lekutan aurkeztu zen horma-irudi kolektiboa.
http://wikitoki.org/blog/2017/03/06/exposicion-de-la-residencia-de-espacio-publico-en-sarean/

***ABRIR CÓDIGO* (Iker Vázquez Arteche)**
Wikitoki zer den eta nola dabilen lantzen duen lana. Gailuei buruzko sintesi-, itzulpen- eta diseinu-jarduera, zeinetan Wikitokiko autoantolaketa bermatzen den. Murgilketa komunitatean, bere protokoloetan, antolatzeko eta harremanak izateko moduetan. Kanpo-begirada erabilera-gida eta azalpen-eskemak itzultzeko.
http://wikitoki.org/wp-content/uploads/2018/05/QUE-ES-Y-COMO-FUNCIONA-WIKITOKI.pdf

***BERREA* (Grupo LoRelacional)**
Esperimentazio performatibo eta audiobisualeko prozesua teknologia bigunei eta

gizakien talde-harremanei buruz, oreinen marrualdiaren behaketa-esperientzia abiapuntu gisa hartzen duena. Proiektua Wikitokin ospatutako marrualdiaren festa batekin amaitu zen.
http://wikitoki.org/blog/2017/03/16/proyecto-berrea-de-lorelacional/

***ELLAS* (Savina Lafita Solé y Ainhoa Resano)**
Ikerketa-prozesu parte-hartzailea Bilboko Goi Auzoen emakumeen oroimenei buruz. Esplorazio proiektu honek, antropologia eta argazkilaritza nahasten dituenak, bizitza-istorioa ezagutzea eta azalaraztea bilatzen du argazki-fitxategi pribatuen bidez. Proiektua erakusketa, bideo dokumental eta egunkari bat bezala aurkeztu da.
https://www.facebook.com/ellasbarriosaltos/

***ORGANIZARSE EN COLECTIVO* (Arterra)**
Lan- eta laguntza-prozesua zeinaren bidez Soziokraziaren ezagutarazi Wikitokiren esparruan komunitatearen gobernantza-eredua garatzera begira biltzar bidezkotik adostasun-bidezko erabakiaren printzipioetan, lana zirkuluetan, lotura bikoitzetan,... oinarritutako eredu honetara.
http://wikitoki.org/blog/2019/01/10/residencia-organizarse-en-colectivo-arterra/

***MEMEMAKINA* (Mikel Aginagalde)**
Wikitokiren komunikazio digitaleko hedabideetan eta sare sozialetan euskera sartzeko ahalegina hizkuntza bisualaren, memen ekoizpenaren eta neurrira egin daitezkeen stickerren bidez. Egonaldiaren ondorioz fanzine bat, mememakina bat eta Telegramerako 30 sticker-sorta sortu ziren.
http://wikitoki.org/blog/2018/08/09/con-este-ultimo-post-llega-la-hora-de-despedir-la-residencia-de-euskera-mikel-aginagalde-bastardo-periodo-de-experimentacion-febrero-junio-de-2018/

***NOT A SOHO* (Not a Soho kolektiboa)**
Bilbo Zaharreko, San Frantsizkoko eta Zabalako sohotizazio eta gentrifikazio prozesuetan arteak dituen aukerei buruzko ikerketa ekintzatik abiatuta. Joera situazionista, dadaista eta testuinguruaren araberakoa duten ekintza ludiko eta performatiboetan oinarritutako prozesua, zeinak besteak beste inguruaren kreazio-esplorazioa egiteko zazpi jokoz osatutako gida didaktikoa sortu zuena.
http://wikitoki.org/blog/2018/09/18/residencia-not-a-soho-periodo-julio-diciembre-2018/

***SUAVE* (Bruno Ibáñez)**
Urritu, gelditu, beta hartu, gorputza sentitu, erritmoa ulertu, modu leunean funtzionatu. Baldintzatzen eta zapaltzen gaituena deuseztatzen saiatzea, zer eta nola aldatu nahi/ahal dudanari buruz ikertzea, guztien ongizatea bilatzen, gizabanakotik abiatuz, barrutik kanpora. Yoga eskolak, gorputzekoa egiteko bankua, kaxa-beroa, erlaxazio-soinuak.
http://wikitoki.org/blog/2018/08/07/desde-el-dolor-y-la-gratitud-residencia-experimental-suave-de-bruno-ibanez-lozano-periodo-de-experimentacion-febrero-junio-2018/

***THE TORTIL IS PREST! Euskara maitasunetik, mesedez ;)* (Peru Calabaza Saban)**
Wikitokiko biztanleek euskararekiko dituzten egoerak eta motibazioak ezagutzetik abiatuta, zenbait ekintza eta gailu proposatu ziren (Cofre EUSKALO!, Berba bazkariak eta Taller eusperimental), hizkuntzen ekologiaren filosofiatik eta konpromiso pertsonal zein kolektiboak onartzetik egunerokotasunean, judiziorik gabe, alderdi ludiko, informaletik euskararen erabilera sustatzeko asmoa dutenak.
http://wikitoki.org/blog/2018/01/08/retorno-the-tortil-is-prest-euskara-maitasunetik-mesedez/